



Interpretazio-harrera etxea meategiaren laborategian egin dute. J. C. RUIZ / ARCAZKI PRESS



Pasabiderako sarrera ezinduentzat ere prestatu dute. J. C. RUIZ / ARCAZKI PRESS

Arditurrin **altxorra** aurkitzeko prest

Meategi ikusgarriak edonork bisitatzeko modua izango da laster Arditurrin. Hilabete inguruko lanak falta zaizkio Oiartzungo Udalarik tokia behar bezala egokitzeko.

IRUNE LASA
Oiartzun

Gizakiaren eta naturaren artean gerrarik bada, Arditurriko meategiak gudu horren fronte izan dira mendeetan. Granitozkoa da Aiako Harria-Bianditz mendigunea, Euskal Herriko granitozko azaleratze bakarra. Eta haren bihotzean altxorra dago.

Aurretik, Burdin Aroan, ustiatu zutela uste da; baina aztarna zaharretan erromatarrek ageri dira altxorren bila Arditurriko meategietan, zilarrezko altxorren bila. Haiek eta haien ondorengoek 15 kilometro luzerako hobeekin zutatu zuten mendia, eta egun zuzen-zuzen funtzionatzen duen ingeniarritza obra ikusgarria egin zuten ura ateratzeko eta lehorrean airtzeko errekarren mailaren azpian egonda ere.

Erdi Aroan ere altxorren bila jarraitu zuen gizakiak, burdina ateratzen baina laster utziko zuten



Ezkerraldean goian erromatarren garaiko galeria bat ikus daiteke, gero dinamitak handitutakoa. J. C. RUIZ / ARCAZKI PRESS



Oiartzungo Udaleko Enrike Lekuona eta Karlos Aseginolaza. J. C. RUIZ / ARCAZKI PRESS

meategia. XVIII. mende amaieran Johann Wilhelm Thalacker ingeniari alemaniarra iritsi zen arte, zilar eta berun bila. Erromatarren garaiko 42 galeria eta 82 putzu topatu zituen.

1800. urte ingurutik aurrera, dinamitarekin egin zuen gizakiak harriaren aurkako gerra Arditurrin, eta askotan erromatarrek zulatutako lekuetan are zulo handiagoa egin zuen mineral bila. 1980an aire libreko meatzaritzari ekin zitzaion, lau urte eskaseta milioika hondakin tonako mendiak sortuz.

Sentsazioz betetako 200 metroko ibilbideak askorako ematen du mendiaren barrunbeetan

Meategietara iristeko errepidea asfaltatzen ari dira, eta aparkalekua prest dago

Eta 1984an amaitu zen mineral erauzketa Arditurrin, Real Compañía Asturiana de Minasek bere jarduera bertan behera utzi zuenean.

GRUYERE GAZTA. Altxorra, alabaina, hor dago, eta ez da minerala. Meategia bera da. Izadiaren eta gizadiaren arteko borroka lekua. Aiako Harriaren ikuspegi pribilegiatuaz gain, dinamitak eraldatutako lurrazalaz gain, mendia gruyere gaztaren moduan zulatzen duten 40 kilometro galerien labirintoa bera.

Eta altxorraz gozatzeko erraztasun gehiago izango da laster Aste Santu ingururako nahi dute-eta guztia prest izan Oiartzungo Udalekoek. Jende guztia, ezinduek barne, meategian sartu ahal izateko pasabidea, esaterako, amaituta dute. Sentsazioz betetako 200 metroko ibilbideak askorako emango du mendiaren barrunbeetan. Gizakiak egindako zulo eta galeria ikusgarriak, mendia behera ez etortzeko utzitako zutabetzararak... Erromatarren garaiko aztarna batzuk ere ikusten dira.

Kanpoan, meategietako laborategia interpretazio-harrera etxea bihurtu dute, azken teknologiak erabiliz, bisitariei abegi egiteko. Hara iristeko errepidea asfaltatzen ere ari dira. Hori bai, aparkalekua meategi sarreratik 300 bat metrora egokitu dute, eta meategirainoko bidea oinez egin beharko da. Ergoien auzoa pasatu, eta Aritxulegira iritsi aurretik ezkerretara hartu behar da errepidea. Dena den, bide gorria —meategiko trenbidea baliatuz egindakoa— erabili eta goraino oinezko ibilaldi ezin ederragoa egin daiteke dagoeneko.

IBILBIDE LUZEAGORAKO AUKERA. Pasabidetik meategia ezagutzea aspergarria izan daitekeela uste duena oker dago. Dena den, Oiartzungo Udalen egitasmoa ez da horretan gelditzen. Uda ingururako galerietan barne, modu seguruan eta gidari batekin, 800 metro inguruko ibilaldia egiteko modua prestatuko du. Lehen fasean zabalduko den pasabiderako bisitan hogeitaz lagunek talde txikiak hartuko dituzte, baita pasabidetik kanpo egingo den ibilaldietarako ere.

Lan guztiak ingurunea ahalik eta gehien errespetatuz egiten saiatu dira, baita aztarnak aztertzen jarraitzen duten arkeologoen lana ere. Arditurriko meategiak eta haiek hartzen dituen parke naturala altxor moduan zaindu behar dira eta.